



# Ikasleak ere kazetari

**B**i mila eta hamabosteko urte amaieran hasi zen TOLOSALDEKO ATARIA eskualdeko hainbat ikas-tetxerekin elkartu eta lankidetza aukerak aztertzen. Proiektuari forma eman ostean, 2016-2017 ikasturtean gauzatu-ko da *Erakutsiz Ikasi* egitas-moa.

Ikasleen ikasketa prozesuan txertatu nahi da TOLOSALDEKO ATARIA hedabide multimedia, eta horrela adin ezberdinetako ikasleek idazmena eta ahozko-tasuna landuko dituzte, eta be-  
 raien trebetasun eta lanak era-  
 kutsi ahal izango dituzte bai os-  
 tiraletan argitaratzen den  
 astekarian eta baita irratian  
 107.6 fm-an ere.

Ikastetxean ikasleek landuta-  
 ko gaiak argitaratuko dira: elka-  
 rrizketak, erreportajeak, bertso-  
 ak, poema, ipuinak,... Eta era  
 honetara, hizkuntza eta komu-  
 nikazio gaitasunak landu, gara-  
 tu eta jendarteratuko dituzte  
 ikasleek.

Lehen Hezkuntza, Derrigo-  
 rreko Bigarren Hezkuntza, Ba-  
 txilergoa eta Erdi eta Goi maila-



ko ikasleen lanak emango dira ezagutzera hamabostean behin astekarian.

## Irratian ere, 'Erakutsiz ikasi'

ATARIA irratian ere ikastetxe ba-  
 koitzak bere tokia izango du. As-  
 tez aste, ikasleek eginiko 10-15  
 minutuko saioak entzun ahal  
 izango dira, ostegunero, . Kasu  
 honetan ere, ikasleak gelan lan-  
 tzen ari diren gaien inguruko be-  
 rriak edota ikasleak protagonista  
 izango diren beste hainbat kon-  
 tu ere, esaterako, irradi nobelak  
 entzun ahal izango dira.

Ekoitzitako guztia, [www.ataria.info](http://www.ataria.info) webgunean izango da eskuragarri; horretarako sortuko den atal berezian eta baita gaien arteko hezkuntza alorrean ere. Bertan

Honez gain, aurreko urtetik martxan diren bisita gidatuez ere gozatu ahal izango dute. TOLOSALDEKO ATARIAREN erredakzioa barrutik ezagutzeko aukera izango dute, kazetariekin hitz eginez. Egunkaria eta astekaria nola egiten diren ikusiko dute eta irratian ere zuzen-zuzenean sartuko dira.